

ÍNDICE

1. HELBURUA.....	2
2. IRISMENA	2
3. PROZESUA	2
3.1 SARBIDEA.....	2
3.1.1 ATARI PRIBATUA URA-ren WEBGUNEAN	2
3.1.2 ESTEKA ZUZENA WEB-TRESNARA	3
3.2 IDENTIFIKAZIOA	3
3.2.1 PERTSONA JURIDIKO BATEN IDENTIFIKAZIO ELEKTRONIKOA (ENPRESENTZAKO IZENPE txartela)*	3
3.2.2 PERTSONA FISIKO BATEN IDENTIFIKAZIO ELEKTRONIKOA*	3
3.2.3 IDENTIFIKAZIO ELEKTRONIKOA EZEAN, ERABILTZAILA ETA PASAHITZ BATEN JASOTZEA	3
3.3 EGITURA	3
3.3.1 ABISU TAULA.....	3
3.3.2 LAGUNTZA ETA PLANTILLEN DESKARGATZEA	4
❖ Txantiloak	5
3.3.3 KARGA FITXATEGIA	5
3.3.4 INFORMAZIOAREN MANTENIMENDUA.....	6
1) <i>Analitikak kargatzea formulario bidez DKT aplikazioan.....</i>	6
2) <i>Analitika baten karga Excel fitxategi batean Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoaren bitartez</i>	
<i>BERRITASUNA.....</i>	7

1. HELBURUA

Jarraibide hauen bitartez, beste abantaila gehigarri batzuez gain, honako hauek lortu nahi dira:

- Ulertaraztea DKT-Datuak Kudeatzeko Tresna aplikazioaren erabilpen zuzena zein den. Era berean, **analisiak Excel fitxategien bidez kargatzen badira**, fitxategi horiek gehitzeko **kanal berri bat** helaraztea.
- Kargak egiteko ezarritako baldintzak betetzen direla bermatzea.
- Kargak izan ditzakeen akatsak edo akatsak gutxitzea.



2. IRISMENA

Jarraibide dokumentu hau aplikagarria da DKT aplikazioari analisiak eta emariak jakinarazteko prozesuetan; horretarako, jarraian zehazten diren sarbideetako edozein erabili ahal izango da.


3. PROZESUA


3.1 SARBIDEA

DKT aplikaziora URAREN webgunetik sartu daiteke, "Atari Pribatua" atalean klik eginez, edo zuzenean hurrengo HTML esteka erabiliz:


3.1.1 ATARI PRIBATUA URAREN WEBGUNEAN

<https://www.uragentzia.euskadi.eus/hasiera/>



EU ES Atari pribatua 

ura URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA

Gunearen mapa Erabilerraztasuna Egoitza elektronikoa 

URA Jarduera arloak Prensa eta multimedia Tramiteak eta kontratazioa Kontaktua Larrialdi baten aurrean 112 ¿Zer da larrialdi?

Euskadi Urak liburua eta erakusketa
Kontserbazio-egoera onean dagoen ur-ingurune bat izateak duen garrantziaz kontzientziatu eta sentsibilizatu nahi duen ekimena

Aplikazioen ataria

- Ura Kanona
- Isurketen analitika eta emarien datu-karga**
- Ur-bolumena kontrolatzeko sistemako emarien karga

3.1.2 ESTEKA ZUZENA WEB-TRESNARA

<https://apps.euskadi.eus/aa08aVistaWar/inicioMigas/maintInicioMigas?R01HNoPortal=true>

3.2 IDENTIFIKAZIOA

DKT sartu ahal izateko **identifikatzeko 3 modu** daude:

3.2.1 PERTSONA JURIDIKO BATEN IDENTIFIKAZIO ELEKTRONIKOA (ENPRESENTZAKO IZENPE txartela)*

Behin identifikatuta, erabiltzaileak URArekin indarrean duen espedienteetara sartzeko aukera izango du.

3.2.2 PERTSONA FISIKO BATEN IDENTIFIKAZIO ELEKTRONIKOA *

Kasu honetan, pertsona fisiko baten NAN agiria izanda, URAK aldeztu aurretik egin beharko du lotura NAN horren eta dagokion NIFaren artean, azken honen espedienteetara sartzeko baimentzeko.

3.2.3 IDENTIFIKAZIO ELEKTRONIKOA EZEAN, ERABILTZAILE ETA PASAHITZ BATEN JASOTZEA

Baldin eta karga egin nahi duen pertsonak identifikazio elektronikorik ez badauka, URAK erabiltzaile eta pasahitz bat esleitu ahalko dizkio, aldeztu aurretik eskatuz gero eta gutxienezko datuak eman eta gero.


**Analisia eta emari-datuak Excel fitxategien bitartez helarazteko, elektronikoki identifikatu beharko da IZENPE txartelaren bidez Eusko Jaurlaritzaren bidez.*

3.3 EGITURA

Jarraian, erabiltzaileek DKT tresnan informazio-kargak egiteko modulu erabilieneren aurkezpena egiten da.

3.3.1 ABISU TAULA

Hasierako pantailan abisu-taula bat agertzen da. Komeni da erregularitasunez kontsultatzea aplikazioaren inguruko nobedade, aldaketa edo jakinarazpen interesgarriak ezagutzeko.



The screenshot shows the Ura web application interface. At the top, there is a navigation menu with options: Txantiloak deskargatzea eta laguntza, Karga-fitxategia, Informazioaren mantentzeak, and Administrazioa. Below the menu, there is a table titled 'ABISUAK' (Notifications) with the following data:

ABISUAK	
2022/05/16	Isurketa-Erreportaria
2022/05/16	Isurketa-Erreportaria
2022/01/20	Isurketa-Erreportaria
2020/11/24	Isurketa-Erreportaria
2020/01/20	Isurketa-Erreportaria

Below the table, there is a text box containing the following information:

Hurrengo estekan aurkitu dezakezu fitxeroen karga modu egokian egiteko gida bat: <https://www.uragentzia.euskadi.eus/analisis-eta-emarien-berri-ematez-dkt-tresnan/webara09-contentas/eu>
Hemendik aurrera, E-izen egotza elektronikaren bidez kargatu behar dira fitxategiak, jarraipen espedientean.
Emariaren kargari buruzko oharra: tratatutako ur-emaria analitika puntual gisa kargatzen da (P), 200-204 kodeekin. Gainerakoak emariaren igorpen gisa kargatzen dira (R), 500-505 kodeak.
Txantilo bakuna eta anizkoitza egeneratu ditugu, Lito eta Sodio parametroak gehituz. Eskerrik asko.
Txantilo bakuna eta anizkoitza egeneratu ditugu. Vanadio eta Indice de hidrocarburos parametroak gehituz. Aplikazioaren eskuliburuak egeneratu ditugu ere bai.

Aplikazioak **hiru modulu** ditu:

- Analitika eta isurketa-emarien txostena
- Aprobetxamendu emarien txostena
- Ur-kalitatearen laginketa datuak

Isurketa baimenen titularrek lehenengo modulua erabiliko dute, **Analitika eta isurketa-emarien txostena**.



Behin aplikazioan gaudela, goi partean hainbat fitxa ditugu. Jarraian, erabilienak aurkezten dira:

3.3.2 LAGUNTZA ETA PLANTILLEN DESKARGATZEA



Aplikazioaren laguntza gida eta analitikak kargatzeko erabili beharko diren Excel fitxategien txantiloiak biltzen ditu:

❖ Txantiloiak

- **Fitxategi sinplearen txantiloia:** isurketak fluxu bakarra duen kasuetarako.
- **Fitxategi anizkoitzaren txantiloia:** isurketak hainbat fluxu duen kasuetarako.


Kontuan izan behar da **analitikak eta emari-datuak Excel fitxategi bidez kargatu daitezkeela Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikokoaren bitartez, aurrerago azalduko den moduan, baina, betiere, URAko txantiloien eredu normalizatua errespetatuz**. Txantiloietan zehaztutako formatura egokitzen ez bada, kargak errorea emango du, eta hortaz, karga baliogabetuta geratuko da.



3.3.3 KARGA FITXATEGIA



Karga-fitxategia fitxan, **fitxategien kudeaketa** sakatuz, aplikazioan kargatutako datuak kontsultatzeko sarbidea ematen digu aplikazioak.



3.3.4 INFORMAZIOAREN MANTENIMENDUA




Modulu honek **analitikak eta emari datuak URari helaraztea** ahalbidetzen du. Orain, horretarako bi metodo daude:

1) Analitikak kargatzea formulario bidez DKT aplikazioan


GOMENDAGARRIA BAKARRIK HELARAZI NAHI DEN DATU KOPURUA TXIKIA DENEAN

Horretarako, hurrengo irudiko pausoak segi:

- **Informazioaren mantenimendua -> Analitika eta isurketa-emarien txostena -> Gehitu analitika**




Ondoren, “**Autokontrol**” aukera aktibatu beharko dugu, eta “eskuz”, helarazi nahi dugun datu bakoitza sartu beharko dugu galdetegia osatuz. Karga prozesua bukatzeko, “**GRABATU**” botoia sakatu beharko dugu.



2) **Analitika baten karga Excel fitxategi batean Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoen bitartez BERRITASUNA**

Analitika eta emari datuen helaraztea Excel fitxategien bidez SOILIK Egoitza Elektronikotik egin ahal izango da.

Informazio kargatzeko metodo hau Egoitza Elektronikoa dago erabilgarri, norbanako "NIRE KARPETA" gunean. Gune honetara IZENPE txartela erabiliz sar daiteke. Gure kasuan, **isurketa espedienteari lotutako IZENPE txartelekin** (Enpresa IZENPE txartela baldin eta titularra pertsona juridikoa bada):



Hurrengo baldintzaren bat betetzen duten pertsonen bano ezingo dute kargak gauzatu metodo honen bidez:

- Isurketa baimenaren titularra.
- Ahalordeen erregistroan titularraren ordezkari bezala altan emandako pertsonak.
- Jarraipen espedientearen interesdunak.

Modu honetan, **legezko balioa ematen zaio titularrek egiten dituzten fitxategien kargei.**

Hurren, metodo honen bitartez Excel fitxategiak egiteko prozesua deskribatzen da:

LEHEN PAUSUA

Behin "NIRE KARPETA"n sartu garela, gure isurketa baimenari dagokion jarraipen espedientera jo behar dugu.


Modu errez batean identifika ditzakegu jarraipen espedienteak, hurrengo siglekin hasten direnak baitira:

- SV-
- SVM-



BIGARREN PAUSUA

Ondoren, **Espedientearen egoera** atalean kokatuta dagoen **DOKUMENTUAK ERANTSI** aukera sakatu behar dugu.




HIRUGARREN PAUSUA

Hurren, hiru fase dituen galdetegi batere bideratuko gaitu aplikazioak. Hauek betetzen joan beharko gara fitxategia modu egokian kargatzea lortu arte.



1.fasean, “Datuak bete”, eskatzen den informazio bete ondoren, “**Analitiken fitxategia DKTra kargatzea (.xls formatua)**” aukera aktibatu behar dugu, tik batekin.



(órgano gestor):
D. GESTIÓN DEL DOMINIO PÚBLICO

Datos personales

Interesado a efectos de la ley

Número de identificación

Nombre y apellidos

Expongo:

He presentado una solicitud para el siguiente procedimiento: Seguimiento de Autorizaciones de Vertido DPH

Fecha de presentación de la solicitud: 22/02/2022

Objeto:

Aporto a mi expediente administrativo la documentación que adjunto en el Paso 2:

Aportación de datos


Carga del fichero de analíticas a DKT (formato .xls)

ELAR

SIGUIENTE

Hurrengo irudian ikusi daitekeen moduan, **soilik** aukera hau “**Analitiken fitxategia DKTra kargatzea (.xls formatua)**” aktibatuz gero, posible izango da karga fitxategiak erabiliz aurrera eramatea. “**Hurrengo**” sakatzean modulu berri batera eramango gaitu aplikazioak.

Modulu honetan, eskatzen diren datu guztiak bete beharko dira. Era berean, ezinbestekoa da menu zabalgarrian aukeratzea espediente gestorea (*) zeinetan informazioa kargatu nahi dugun.




(*) Zalantzak izatekotan espediente gestorearen erreferentziaren inguruan, URari kontsulta egin.

Behin datuak bete ditugula “**Hurrengo**” botoia sakatu beharko dugu azken fasera aurrera egiteko, zeinetan fitxategiaren behin betiko karga gauzatuko den.

Gomendioa

Karga egin aurretik ziurtatu nahi bada fitxategia errore gabekoa eta baliozkoa dela, eta ez duela akatsik sorraraziko Egoitza Elektronikoa bitarteko iraulketa egiterakoan, fitxategia balidatu beharko da, orain arte egin moduan, DKT aplikazioan bertan. Hurrengo pausuk jarraituz:

Karga-fitxategia -> Analitika eta isurketa emarien txostena -> Fitxategiaren balidatzea edo/eta kargatzea:



The screenshot shows the Ura web application interface. The header includes the Ura logo and the text 'URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA'. The main content area contains a form with various fields and options. At the bottom of the form, there are two buttons: 'FITXATEGIA BALIDATU' (highlighted in red) and 'FITXATEGIA KARGATU'.

Behin fitxategia balidatu dugula (edo ez), erantsi egin beharko dugu hurrengo aukera sakatzuz:
“Analitiken fitxategia DKTra kargatzea (.xls formatua)”

Hemen erantsitako fitxategietan sinadura beharrezkoa da. **“Sinatu”** botoian sakatzuz egin daiteke:

Amaitzeko, “**GORDE**” aukera sakatu eta ondoren “**HURRENGOA**”. Jarraian, eskabidea telematikoki bidali ahal izango dugu, besterik gabe, «**BIDALI**» aukeran klikatuta.

Datos necesarios para la aportación

Tipo de fichero: Múltiple

Tipo de análisis: Autocontrol

Laboratorio externo: No

Expedientes vigentes: Vigentes

Expediente vertido: V-01-13287 **Expediente gestor:** VDP-A-2022-0005

Documentos aportados

Tipo de documento	Nombre
Fichero de Analíticas de Vertidos	AÑADIR FICHERO DE ANALITICAS.xlsx

INICIO VOLVER **ENVIAR**

EMARIEN ERREPORTEARI buruzko NOTA

Tratatutako ur-emaria analitika puntual gisa kargatzen da (P), 200-204 kodeekin. Gainerako emariak emarien erreporte gisa kargatzen dira (R), 500-505 kodeak.